



ALBISTEAK

IRUDIA

PRENTSA

HEMEROTEKA

ALBISTEAK

2014/04/22

Diego Gutiérrezi
elkarrizketa-
Hackaton
jardueraren
antolatzailea

2014/04/15

Artista amateurak
eta profesionalak
elkarlanean...
Zeinen gustuko
ditugun
gurutzaketak!

2014/04/24

Sagardoaren tradizioa berreskuratzen – Sagardoaren Ibaia

Albaola Itsas Kultur Erakundeak iraganera begiratzeko proposamena egiten digu “Alaren eraikuntza eta nabigazioa” izeneko ekimenaren bitartez. Jarduera honetan, aspaldian Urumea ibaian zehar sagardoa garraiatzeko erabiltzen zen ala (gabarra baten antzeko txalupa zapal eta zabala) eraikiko da, eta eraikuntza amaitu ondoren, barkuak ibaian zehar nabigatuko du, antzinako historiaren erreproduzio gisa.

Ekimen honen bitartez, aspaldiko historia gaurkora ekarri nahi da, ***Sagardoaren ibaia*** berreskuratuz, eta bide batez, garai bateko bizimodua azalduz. Hainbat urtetan hirian erabili den garraiobidea azpimarratzea ere bada jarduera honen xedea, batez ere, sagardoaren bilakaeran izan duen eginkizun garrantzitsua dela-eta.

Albaola Elkartek honakoa proposatzen du. Hasteko, maiatzaren 24 eta 25eko asteburuan, Urumea ibaian zehar sagardoa garraiatuko duen ala eraikitzea. Alaren eraikuntza Donostiako portuan egingo da, jendaurrean, eta 8 boluntarioren laguntza izango du horretarako. Bestetik, ekainaren 1ean, 12 boluntarioren laguntzarekin, eraiki den alan sagardoa garraiatu ahal izango da Urumea ibaian zehar. Helmuga, Lizeaga sagardotegia izango da eta bertan, garraiatu diren produktuak entregatuko dira, eta ibilaldiari amaiera emango zaio horrela.



Kutxa Fototeka